

«Nire koadroak bizipen baten irudia izatea nahi dut, esanahi zehatz bat eduki beharrean»

Manu Muniategiandikoetxeak erakusketa zabaldu du Iruñeko Gotorlekuan

Miren Iriarte / Iruñea

Manu Muniategiandikoetxea margolariak erakusketa zabaldu zuen atzo Iruñeko Gotorlekuan. Zintzilikatu dituen 18 lanetatik gehienak beste obra batzuen bertsioak dira, Mixtoen aretorako bereziki eginak.

MANU Muniategiandikoetxeak *Zenbat falta da?* izeneko erakusketa aurkeztu zuen atzo Iruñeko Gotorlekuko Mixtoen Aretoan. Artistak 18 lan paratu ditu ikusgai, «areto honetarako bereziki prestaturikoak gehienak», berak esan zuenez.

Iruñeko Udaleko Arte Plastikoetako teknikari Javier Manzanosen esanetan, Iruñeko eta Tolosako Udalen arteko elkarlan hitzarmenari esker ekarri dute erakusketa Iruñera. Elkarlan hitzarmen horri esker Muniategiandikoetxeak katalogoa argitaratzeari lortu du; «katalogoa egitea oso zaila da, eta aurrera egiteko ezinbestekoa da; azken batean katalogoa da geratzen dena», adierazi zuen atzo Muniategiandikoetxeak.

Eta katalogo hori izan du artistak oinarri Iruñean jarritako erakusketa prestatzeko. Gotorlekuko Mixtoen aretoa ikusi, eta katalogoan agertzen diren zenbait obraren bertsioak egin ditu, bertara egokiturik. «Katalogoko obra gehienak ezin ditut zintzilikatu, saldu baitituz».

Mixtoen aretoan erakusketa egitea oso zaila izan dela deritzo Muniategiandikoetxeak. «Panelak oso handiak dira eta oso zaila izan da hemen lan egitea».

Muniategiandikoetxeak



JOSE LACALLE

Manu Muniategiandikoetxea, atzo, Iruñean egin agerpenean.

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

Arteaz

■ ■ ■ «Mota askotako obrak egitea gustatzen zait, estiloak nahastea gustatzen zait, horrelakoa bainaiz»

estilo ezberdinak batu ditu erakusketan; artistak eta Manzanosek ere esan zuten, jendeak artelan geometriko, monokromo eta hotzak egiteagatik ezagutzen du, «baina lehenedik ere obra mistoa egin izan dut».

Artearen arriskua

Erakusketan estilo ezberdinak biltzeari buruz, oso egoera iruditzen zaiola dio artistak bergararrak. «Artetik bizi-

tzea oso zaila da, apustu handia egin behar da zerbait lortzeko; erakusketa batean estilo anitz biltzea ere arriskua da; nire koadroak bizipen baten irudia izatea nahi dut, ekintza, objektu edo esanahi zehatz bat eduki beharrean, sentsazio bat izatea nahiago dut».

«Artista guztien artelantant akatsak behar dute; akatsik ez egotea egoera txar baten adierazle da. Artista batentzako akats bat bere

buruari zerbait esaten ari zaión seinale da». Horrela uste du Muniategiandikoetxeak.

Javier Manzanosek Muniategiandikoetxearen jarrera arrisku handikoa dela esan zuen. «Irudi geometriko eta kolore bakarrek margo espresionisten ondoan jarri ditu; batzuentzat kontraesana izango da, baina niri miresgarria iruditzen zait».

Manzanosek esan zuenez Muniategiandikoetxeak askatasun handiz margotzen du: «Bere bidea bilatzen ari den artista gaztea da».

Manu Muniategiandikoetxearen erakusketa hilabetez izanen da Iruñeko Gotorlekuan ikusgai, abenduaren 23tik urtarrilaren 23a bitartean.

Kanboko museoko kontserbatzailea ebasteaz akusatua izan da

■ *Edmond Rostand idazlearen gutun batzuk lapurtu eta enkantera eraman zituen*

Iñaki Etxeleku / Baiona

Kanboko (LAPURDI) Edmond Rostand museo-kontserbatzailea, Henri Courtelarre, astearte arratsan atxilotu zuten erakustokiko dokumentu batzuk ebasi edo lapurtu dituela susmatzen baitute. Baionako komisaldegian galdekatua izan ondoren auzitegiko epailearen aurretik iragan behar zuen atzo.

Edmond Rostandek —*Cyrano de Bergerac* eleberriz ezagunaren idazlea— idatzi eskutitz batzuen eta Anna Noailles, Jules Renard eta Jean Cocteau famatuenganik errezebitu beste batzuen ebasteaz akusatua da. Orotarat, 36 eskutitz dira.

Parisko Drouot hoteleran, iragan urrian egin enkantean agertu ziren gutun horiek 40.000 libreraren truke (milioi bat pezeta inguru). Edmond Rostand idazlearen bizia ongi ezagutzen duen espezialista batek ezagutu zituen aipatutako eskutitzak. Kultura Ministeritzako Estatu Kontseiluko honek bazekien dokumentu hoiek hor izatea ez zela zuzena, Kanboko museoan izan behar zutela, eta jukutiaz berehala ohartu zen. Laster ikerketak agerian ezarri zuen bezala, bere burua Courtelarre kontserbatzailearen laguntzat zaukan emazte batek saltzen zituen dokumentuak. Emazteak aitortu du Courtelarentzat saltzen zutela.